

Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Bixente Etxeandia Arregi

*Aretxabaleta,
Gipuzkoa (1931)*

Aurkibidea



Biografia



Aretxabaletako Durana kalean jaio zen 1931n. Aita ere aretxabaletarra zen; ama, berriz, Arrasatetik neskame etorritakoa. Bost anai-arreba ziren. 15 urtera arte Aretxabaletako eskola nazionaletan ikasi zuen eta geroago Deustuko Salesiarren Eskola Profesionalean ibili zen lau urtez. Eskola utzi eta futbola hartu zuen ogibide. UDA taldearekin jokatu zuen hiru denboralditan; handik Alavesera lehenengo mailara igo eta 7 urte egin zituen bertan. Gerora Granada, Huelva, Sestao, Mirandes eta Vitoria taldeetan jokatu zuen. UDA taldeko entrenatzaile gisa ere aritu zen lau urtez. Futbola utzi zuenean sarraila-lantegi bat jarri zuen, baina 15 urte geroago itxi egin zuten. Aretxabaletako Eskola Profesionaleko gimnasiako irakaslea izan zen beste 15 urtez, erretiratu arte. Bere emazte Rosario Garziaetxaberekin batera egin zitzaion elkarriketa.

Zintak

ARE-038

- **Proiektua:** Deba Eskualdeko Ahotsak - Aretxabaleta.
- **Elkarrizketatzailea(k):** Elortza, Kepa
- **Data:** 2009-05-05
- **Iraupena:** 10 min
- **Euskarria:** MiniDV
- **Kodifikatzailea:** Goiria Mendiola, Nerea
- **Transkribatzailea(k):** Elexpuru, Juan Martin

ARE-039

- **Proiektua:** Deba Eskualdeko Ahotsak - Aretxabaleta.
- **Elkarrizketatzailea(k):** Elortza, Kepa
- **Data:** 2009-05-05
- **Iraupena:** 17 min
- **Euskarria:** MiniDV
- **Kodifikatzailea:** Goiria Mendiola, Nerea
- **Transkribatzailea(k):** Elexpuru, Juan Martin

ARE-040

- **Proiektua:** Deba Eskualdeko Ahotsak - Aretxabaleta.
- **Elkarrizketatzailea(k):** Elortza, Kepa
- **Data:** 2009-05-19

- **Iraupena:** 25 min
- **Euskarria:** MiniDV
- **Kodifikatzailea:** Etxeberría, Idoia

Pasarteak

1. Neskek dotrina erdaraz; mutilek euskaraz

- **Erref:** ARE-038/009
- **Iraupena:** 0:01:15. **Hasi:** 00:07:55. **Bukatu:** 00:09:10
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Maisu-maistrak
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Eliza giroko ospakizunak

Laburpena:

Euskara zela eta ez zuten arazorik izan. Rosariok dotrina gaztelaniaz jaso zuen, Aita Gurea-eta be bai, Bixentek aldiz euskaraz jaso zuen don Angel maisuaren eskutik. Izan zituen beste mi maisu ere aipatzen ditu: don Dominito (erdalduna) eta don Isidro (Eskoriatzakoa).

Transkripzioa

-Euskeriakin izaten zebein problemarik edo?
 -Ez, klaro, guk dotriñie ta be erderaz da Aittagurie ta be ez geuen ikasi orduan. Dana erderaz. Bai, bai, bai. Guk erderaz ikasi gauen.
 -Beste leku batzuetan dotriñia erakutsi izan dabe euskeraz.
 -Euskeraz guk ez, e.
 -Basarri auzuetan igual.
 -Ba guk ez, guk erderaz dana.
 -Guk euskeraz be eitten gauen.
 -Guk dotriñia ta dana erderaz ikesi gauen.
 -Guk euskeraz.
 -Dotriñia ala eskolia?
 -Dotriñia, dotriñia. Dotriñia ta orduen elixako gauzak euskeraz emuten oskuen. Don Angelek eta horrek.
 -Dotriñia maixu normalak emuten eben ala abadiak?
 -Ez, ez, ez. Maixuak normalak. Bat euskalduna zuan, atzenekua euskalduna zuan, autentikua, hemengua zuan da, Gellaukua.
 -Gellaukua zan.
 -Don Isidro?
 -Bai.
 -Eta don Benito kanpokua?
 -Don Benito erdelduna zuan, erdelduna. Andria ta danak.
 -Doña Zirila ta danak erdeldunak zien.
 -Atxabaletakua.
 -Atxabaletakua ez, Gellaukua. Gellau Eskoritza dok, Eskoritza.

2. Futbolean Salestarren eskolan hasita

- **Erref:** ARE-039/004
- **Iraupena:** 0:03:56. **Hasi:** 00:02:40. **Bukatu:** 00:06:36
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kirola » Futbola
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskolara herritik kanpo

Laburpena:

Adin bera izan arren ez zuten elkarrekin ikasi, mutilek eta neskek ez baitzuten batera ikasten, eraikin ezberdinetan egoten ziren. Eskola bukatu eta gero Deustuko salestarren eskola profesionalera joan zen Bixente, Zerrajeran lan egiteko beharrezkoa ikasi zuen. Eskolako hainbat kontu kontatzen ditu. eskola utzi zuen futbolean hasteko. Aretxabaletan hasi zen futbolean jolasten. Salesianoetan ere bazegoen futbol taldea. taldeko hainbat kontu kontatzen ditu.

Transkripzioa

Zuek alkarrekin ibilli ziñain nazionaletan?

-Ez, ez.

-Etxe bat zan edo?

-Ez.

-Eskolia aparte?

-Aparte-aparte.

-Eskoliak jaukan gutxienez lau ero bost (...) diferentziak. Osea ke; edadietatik pe bajauan, batzuk edade gehixao ba harek..., gutxiaok ba gutxiaokin.

-Eta neskak beste etxe baten eta mutilak beste baten.

-Neskak aparte. Bai ba.

-Eta hamabost urtekin hortik urten eta lanian hasi ziñan?

-Ez. Estudixetan Deustora Salesianosetara, eskola profesionaletara.

-Eta ze karrera ikasi zeuben han?

-Han? Ba Zerrajerak zela zeukan fabrikia, han soziuak eta, ba fan nintzuan ikasten zerrajerixarako. Hori, zerraillak eta ipiñi tta torneuen da ikasi. Zepilluen da lana ein dda.

-Han tituluren bat atara zeuen, "maestro" edo?

-Ez, ez. Porke bost urte (...). Hasi gintzenian salesianotan gazan ciento cincuenta mutillak. Bi kursotan, bi lokaletan. Eta bosgarren urtien (...) gazan treinta y dos. Hogeta hamabi. Osea ke fan zittuzan hortik zihar jentie, "liquidados".

-Bostetik bat geratu ziñen?

-Bai. Eta suspendidu naxuan "Mecánica aplicada", eta esan nontan frailliak, Azkoittikua zuan da, esan nontan: "E!, parkatu baiña nik parkatu ingostat hori asignaturioi aprobauta ingok etortzen bahaz". Nik fubolien in biha naxuan, da nik esan notsan etxien, da etxien be fateko ta. Esan notsan, ni enoiela, lanera noiela, eta fubolien in bihotela.

-Fubola gehixao gustau karrera baiño?

-Bai, bai. Eta lanien etorri nintzuan da Atxabaletan fubolien.

-Da han Salesianotan Deuston eitten zeuen fubolian?

-Bai. Joe, zapatak eta jota apurtuta. Horrek direktoriak, Azkoittikua zuan, eta harek "etxostak ikusten ondo". "Ze ba?", ta beti fubolien nebillen da. Da hasarre egoten zuan bera.

-Estudixau gutxi eta fubolian.

-Fubolian baiña jota zapatak apurtu arte.

-Bazeukazuen eskolako ekiporik edo zerbaitt?

-Bai, bai. Guk jokaketan gaixuan, laugarren urtian jokaketan gaixuen horrekin, unibersidadiakin. Unibersidadiek jokaketan juen orduen seleziñua... Seleziñua ez, baiña porrejenplo Alcoyano etortzen zuan igual, horkua, Alcoyano horkua dok, Alicantekua. Ba jazan bi estudiantiek

fubolista Primera Dibisiñokuek, eta harek etorten zittuztan eta jokaketan juen han unibersidadien partidua. Haik dirua baukien asko, porke danak zittuztan, aberatsak zittuztan unibersidadekuak, danak kanpotarrak. Eta haik aprobetxetan juen astelehenetan, domeketan jokaketan juen Bilbon da astelehenien jokaketan juen unibersidadien partidue ekipuak. Haik dirua jaukien eta haik, e. Guk ez. Geure artian jokatu ta.

3. Bixente tailerrean eta Rosario 'Centro Católico'ko tabernan

- **Erref:** ARE-039/005
- **Iraupena:** 0:02:05. **Hasi:** 00:06:36. **Bukatu:** 00:08:41
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Taberna giroa » Tabernak eta jatetxeak
- Ekonomia eta industria » Emakumeak lan-munduan (etxetik kanpo)
- Ekonomia eta industria » Langileen arteko harremana eta langile-mugimenduak

Laburpena:

<p>Salestarren eskolatik bueltan etxera bueltatu zen eta Ilargi izeneko tailerrean hasi zen lanean. Futbolean ere jarraitu zuen. Emaztea umezain eta Centro Católicoko tabernan aritu zen lanean. Rosarioren familikoek hartu zuten tabernaren ardura, jatorduak ere ematen zituzten. Hamaika bat urtez izaten zuten taberna.</p>

Transkripzioa

- Orduan Deustotik urten eta etxera etorri ziñan?
- Bai.
- Esan dozu hasi ziñela...
- Hor tailler baten.
- Zela zeukan izena?
- Ilargi.
- Zerraillagintzan.
- Bai, zerraillak itten aen. Horrek soziuek, bastante sozio. Ilargixen hortxe lanien ibili nintzuan. Fubolien iñ eta lanien. Eta nobixie topau.
- Lanien topau ziñuen nobixia?
- Ez, ez, ez. Esan bat? Lanien, ez keba.
- Atxabaletan ezautu. Ezautu, Atxabaletan zela bizi dan ba Atxabaletan ezautu bihar.
- Klaro.
- Eta nobixa horrekin ezkondu ziñan?
- Bai, bai.
- Eta zuk eskolatik urtenda gero zer eiñ zeбен?
- Ba kriada. Umezaiñ-da. Bueno, taberna bat euki gauen hamentxe. Centro Católico esaten jakon orduan. Konserjiek, e, gu gintzen konserjiek. Iñondako, orduen be iñondako lana.
- "Centro Católico" zuan ba, hori zuan ba baten batzuk ein biha juen lana, aittak eta amak hartu juen ba umiendako ta gaztiendako; honek pa zela umiek zien ba han kriada moduen.
- Lana hantxe. Tanto bat emuten oskuen da ba.
- Orduen famelixiak hartu euen zentro hori. Zuk eskolatik urten da segittuan?
- Bai, bai, bai.

- Eta Centro Católico hortan jatorduak emuten zittuen?
- Baitta, bai.
- Orduen oillaskuek eta oiñ baiño merkiau. Merkiau zalako dana.
- Dana, janorduok eta.
- Zenbat urtian euki zebein?
- Urte asko. Zenbat?
- Hamaika bat bai, ezta?
- Hamaika bat urte eukiko gauen. Gero ia aitzak hasi zien ezkonketan eta ya ba itxi gauen. Neu be ezkondu gitzan da ya itxi gauen.
- Oseake tabernarixa izandakua za orduan.
- Bai, bai.

4. 'Centro Católico'a, luistarrak eta futbola

- **Erref:** ARE-039/007
- **Iraupena:** 0:03:23. **Hasi:** 00:08:49. **Bukatu:** 00:12:12
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kirola » Futbola
- Aisia » Taberna giroa » Tabernak eta jatetxeak

Laburpena:

<p>Centro Católico taberna normal bat zen: txikiteorako, kaferako, meriendatarako... Luistarrak egoten ziren bertan eta beti jendez beteta egoten ziren. Luistarrak zeintzuk ziren azaltzen du. Futboleko batzarrak-eta ere han hasi ziren. Futbol taldeak hainbat presidente izan ditu: Juan Luis Izagirre, Anton Agirre, botikaria...</p>

Transkripzioa

- Eukiko dozu goguan, zu neskatilatxua ya. Txikiteo lekua be bazan edo?
- Bai, bai, bai. Txikituak, kafiak, merixendak eta dana, dana.
- Baina Zentro Katolikua gaztienekin eta aktibidadiak eitteko zan?
- Dana. Orduan Luistarrak egoten zien da, dana tabernia beteta egoten zan goxetan. Luistarrak goxeko xwitterdietan mezetara ta gero danak tabernara. Komedoria gauken.
- Luistarrak, hori da kongregaziñua.
- Bai, bai, zan gaztiendako moduko, danak. Beti beteta.
- Luistarrak dittuk solteruak. Osea ke euki leikek berrogei urte eta izen luistarra izen. Gu por ejenplo ezin.
- Horrek mezaik eta emuten eben?
- Ez, ez, ez! Mutil gaztiak. Keba! Hillien behin...
- Neskak Hermanas de María zien moduan.
- Bai, holan izengo zan.
- Hillien behin Luistarren eguna. Eta Luistarrak dittuk el día 21 de junio pentsetan jatak diela. San Luis Gonzaga. Eta orduen ba faten gintzen elixara eta konfesau in biher. Eta illaria, danak elixara konfesetan.
- Bueno!
- Egun horretan ein biha zebein konfesau ta komulgau...
- Bezperan, zapatuen, zera, abadiak hiru ero lau...
- Konfesionarixotan da.
- Kolak.
- Konfesaitteko?
- Kolak.
- Eztie oingo kontuak.

- Ez, ez, ez.
 - Oiñ etxak kolaik.
 - Da han ba gero fubola ta hasi zan eta reUNIXuak eta danak ba hor egoten zien, Zentro Katolikuan egoten zien reUNIXo danak. Kopak eta danak hortxe hasi zien.
 - Hortxe hasi zuan Atxabaleta. Atxabaleta hasi zuan el año cuarenta y seis.
 - UDAkua be hortik?
 - Bai, bai, baitta; dana.
 - Zuek ya nobixo ziñien?
 - Berandutxuao. Horte-hotxe. El año cuarenta y seis? Bai, bagintzen bai. Zuan don... abadia, jefia, luistarrena ta zuan, da fubolekua, zuan don Luis, zuan de Hondarrabi. Hondarrabixakua. Eta gura bok esangostat zein zan presidentia, fundadoria. Presidentia fundadoria izan zuan Juan Luis Eizagirre, andria oñatiarra jaukak.
 - Bera atxabaletarra?
 - Bai, Juan Luis atxabalatara ta andria oñatiarra. Baiña orduan fubola ipiñi zanian etxauan ezkontuta. Eta gero bera jarri zuan presidente eta in jittuan etxakixat zenbat urte, hamar urte ero. Eta gero bigarrena izen zuan Anton Agirre. Aiuntamentuan egon zuan sekretarixo. Eta gero haren ostian egon zuan botikarixua.
 - Plazakua.
 - Farmaziakua. Gero egon zan beste farmaziako bat Hondarribitik etorri zana, ha be egon zan.

5. Aretxabaletako jatetxeak

- **Erref:** ARE-040/002
- **Iraupena:** 0:02:49. **Hasi:** 00:02:15. **Bukatu:** 00:05:04

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- Aisia » Taberna giroa » Tabernak eta jatetxeak

Laburpena:

Garai hartako tabernak zeintzuk ziren, Zentro Katolikoaz aparte. Aita Arruenean zegoen lanean. Zentro katolikoari buruzko azalpenak. Parean bizi ziren. Senarraren etxera ezkondu zen gero.

6. Alaveseko jokalaria

- **Erref:** ARE-040/004
- **Iraupena:** 0:03:42. **Hasi:** 00:05:12. **Bukatu:** 00:08:54

Gaia(k):

- Aisia » Kirola » Futbola

Laburpena:

Bixente futbolean ibili zen Aretxabaletako taldean, eta gero Alavesen jokatu zuen, 1952tik aurrera. Zazpi urte egin zituen han. Lehen mailara igo ziren 1954an, eta gero berriz jaitsi. Granadara joan zen gero, eta lesionatu egin zen. Realeko orduko jokalaria. Realean hasi zen entrenatzen eta handik berriz Alavesera, eta gero Huelvara.

CC-by-sa | Ahotsak.eus

Badihardugu Euskara Elkarte

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com